



hirigintza eta mugikortasuna



Emakumezkoen eta Gizonezkoen  
Berdintasunerako I. Plana 2010-2013



## **Eguneroko bizimodurako zerbitzuak:**

Udal-zerbitzuak eta azpiegiturak herriko erdiguneari begira antolatu izan dira nagusiki. Ondorioz, zerbitzuak askotan urrun geratzen zaizkie auzoetan bizi direnei. Horrek autonomia murriztuagoa duten pertsonak menpekoago bihurtzen ditu eta familiako ardurak dituzten pertsonen bizi-kalitatean negatiboki eragiten du. Hain zuzen, emakumezkoak dira zaintza-lanez arduratzen direnak, hots, zaintza-lanen % 75,2 egiten dituzte Emakunderen 2008ko datuen arabera.

## **Garraioa:**

Ez dago auzoak eta erdigunea lotzeko garraio zerbitzu publikorik eta autoa beharrezko bihurtzen da erdigunera mugitzeko. Horrek, bereziki eragiten die garraio publikoa gehien erabili ohi duten kolektiboek, hala nola, haurrei, gazteei, adinekoei eta emakumezkoek. Era berean, pertsonen zaintzaz arduratzen direnen lan-karga areagotzen du, autorik edo gidabaimenik gabekoak erdigunera kotxez eramatea eskatzen baitu, besteak beste.

## **Segurtasuna:**

Ez da segurtasunik eza sortzen duten guneen inguruko azterketarik egin eta, ondorioz, gune hauek ez daude identifikatuta eta ez da honekin lotutako neurririk landu. Segurtasun eza sortzen den guneetan emakumeek beraien presentzia mugatzen dute eta leku horietatik pasatzea, gaeuz ibiltzea, saihesten dute. Garrantzitsua da espazio publikoan segurtasunaren pertzepzioa izatea, guztiak espazio publikoan berdintasunez parte hartzeko ezinbesteko baldintza baita.

## **Emakumezkoen presentzia sinbolikoa:**

Kaleen izenei erreparatuz gero, kale gehienek gizonetzkoen izenak dituzte. Bergaran, sinbolikoki bada ere, espazio publikoak gizonetzkoena izaten jarraitzen du.

## **Emakumezkoen parte-hartzea:**

Parte hartzeko guneak sortzea beharrezkoa da emakumezkoen nahiz herriko hainbat kolektiboren iritzia kontuan hartzeko. Legeak hala eskatuta, Hirigintzako Aholku Batzordea jarri da martxan 2007tik aurrera, Planeamenduko Plan Orokorraren kontrastea egiteko, baina gune honetan gizonetzkoek parte hartu dute nagusiki. Egin diren 13 bileretatik 9tan herritarren ordezkari gisa parte hartu dutenak gizonetzkoak izan dira soilik, eta emakumezkoek parte hartu duten 4 bileratan, gutxiengoak izan dira; 10 lagunetik 1 hain zuzen.





## gure asmoa

- Herriaren diseinuan eta etxebizitza-politika garatzerakoan emakumezkoen interesak eta beharrak kontuan hartuko dira eta beraien parte-hartzea sustatuko da.
- Kale-izendegian eta espazio publikoan emakumezkoen ekarpenak islatuko dira.
- Garraio publikoaren beharraren inguruko azterketa egingo da, erdigunetik kanpo dauden auzoen

beharretatik abiatuta.

- Mugikortasuna antolatzerakoan, emakumezkoen interesak eta beharrak kontuan hartuko dira.
- Herrian dauden “puntu beltzen” (segurtasun eza sortzen duten lekuak) azterketa egingo da eta beharrezko neurriak jarriko dira martxan. Era berean, espazio berriak sortzen direnean «puntu beltzik» ez sortzea bermatuko da.





Hirigintzaren historian, gizonezkoak izan dira arkitekto, urbanista, politikari, sustatzaile, eraikitzaile eta langile.

Eurek ia esklusiboki pentsatu, diseinatu eta eraiki dituzte herriak. Oro har, ez da kontuan hartu bizitzaren garapenerako lan produktiboarentzat baldintza egokiak sortzea bezain garrantzitsua dela, bestelako lanak egiteko inguru egoki bat sortzea: haurrak zaintzeko, erosketak egiteko, otorduak prestatzeko, adinez nagusi direnak medikuarengana eramateko... Eguneroko bizimoduari balio handiagoa eman behar zaio eta azpiegiturak eta espazioak sortzerakoan behar hauei ere erantzun behar zaie.

Irudika dezagun gertutasunezko ekipamenduz osatutako sarea. Eman diezaiogun aukera zahar bati bakarrik joateko gertu daukan plazara; ume bati eskolara bakarrik joatekoa; amonari laguntzarik gabe sendagilearengana joatekoa; eman diezaiegun amei eta aitei euren hurrekin egoteko aukera, erosketak egiten dituzten bitartean; autobus-geltokiaren ondoan jar dezagun plaza bat eserlekuekin, iturriak, eta arbolak udan itzala emateko, kale-argi atseginak, zakarrontziak, jateko lekuak, jolasteko, esertzeko, irakurtzeko, paseatzeko... trebakuntza-zentroak, erreferentziazko kultur-etxeak, emakumezkoenak, munduko herrienak, denon artean erabiltzeko bizikleta-tailerrak... Azken finean, egin dezagun berriz ere herria atsegin.



Lo urbano, durante toda su historia, ha sido construido por arquitectos, urbanistas, políticos, promotores, constructores y trabajadores masculinos.

Casi de manera exclusiva, ha sido el hombre quien ha pensado, diseñado y levantado las ciudades. Y por lo general, no se ha tenido en cuenta el hecho de que crear las condiciones que favorezcan la promoción del desarrollo productivo es tan importante como crear los lugares necesarios para poder atender mínimamente el resto de las tareas propias de la vida cotidiana: el cuidado de los niños, hacer las compras, preparar la comida, poder acompañar a los más mayores hasta la consulta del médico... Las actividades cotidianas exigen el mayor respeto y deben ser atendidas en su desempeño con las infraestructuras y equipamientos necesarios.

Así pues, imaginemos una red basada en los principios de proximidad donde el anciano tenga la posibilidad de acercarse por sí solo hasta el parque más cercano; el y la menor tengan la posibilidad de acudir por su propio pie a la escuela; la anciana no tenga la necesidad de acudir al médico siempre acompañada por otra persona; los padres y las madres tengan la posibilidad de estar con sus hijos e hijas, mientras realizan las compras. Diseñemos una plaza con bancos frente a la parada del autobús, construyamos calles agradables y luminosas, con fuentes, con árboles que nos protejan del sol en verano, con papeleras, con merenderos, con espacios para jugar y estar tranquilamente sentados, leyendo o simplemente paseando... centros de formación, casas de cultura de referencia, casas de la mujer, casas de todos los pueblos del mundo, un servicio de bicicletas para un fácil uso comunitario... En resumen, hagamos de nuestro pueblo un lugar mejor para vivir.

imaginemos





## nuestros propósitos

- Atender los intereses y las necesidades de las mujeres y promover su participación en el diseño municipal y en la política de vivienda.
- Reflejar la capacitación demostrada de las mujeres en el mapa callejero y en los espacios públicos.
- Atender los intereses y las necesidades de las mujeres en el ámbito de la movilidad.
- Realizar un estudio sobre las

necesidades del transporte público en las áreas limítrofes al centro urbano.

- Realizar un estudio detallado de los “puntos negros” (lugares que provoquen inseguridad) en el municipio, para tomar las medidas adecuadas. Asimismo, la creación de nuevos espacios deberá evitar el desarrollo de dichos “puntos negros”.



# situación actual

## **Servicios para la vida cotidiana:**

Generalmente, los servicios municipales se han organizado enfocados en torno al centro urbano. Vivir distanciado tanto de los espacios públicos como de los servicios y las infraestructuras básicas repercute negativamente en la calidad de vida de las personas con responsabilidades familiares y domésticas, y acrecienta el estado de dependencia de las personas con autonomía reducida. Según los datos de Emakunde de 2008, el 75,2% de las personas cuidadoras siguen siendo mujeres.

## **Transporte:**

No se presta un servicio público de transporte que una los barrios con el centro del municipio, y con ello se incentiva la utilización forzosa del automóvil. Situación que, entre otras cosas, acentúa la carga de trabajo de aquellos hombres y mujeres encargados del cuidado de terceras personas, que se ven obligados, a trasladar hasta el centro urbano a las personas que no tienen coche o carecen de permiso de conducción.

## **Seguridad y zonas peligrosas:**

No se ha realizado hasta la fecha ningún estudio de identificación de las zonas de riesgo en nuestro municipio, por lo que no existe ningún diagnóstico que nos indique con toda exactitud las medidas de prevención que han de adoptarse a este respecto.

## **Presencia simbólica de las mujeres:**

La mayor parte de nuestras calles están designadas con nombres de varón. Tan sólo hay una calle y una plaza dedicadas a mujeres en nuestro municipio. Por tanto, y aún tratándose de una apreciación de índole simbólica, en la villa de Bergara los espacios públicos siguen perteneciendo a los hombres.

## **Participación de las mujeres:**

Siguiendo la legislación vigente, en el 2007 se puso en marcha la Comisión Asesora para contrastar el Plan General de Planeamiento. La participación masculina ha sido mayoritaria. En 9 de las 13 reuniones celebradas, los representantes vecinales han sido sólo hombres, y en las 4 reuniones en las que sí ha habido participación femenina, las mujeres eran una minoría; más concretamente, 1 de cada 10 participantes.



Es, pues, necesaria impulsar la participación de las mujeres.



# urbanismo y movilidad

I. Plan para la Igualdad de  
Mujeres y Hombres 2010-2013

